

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisikoaren helbide fiskala.

R 24/2015 Ebazpena
102/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua ZERGAPEKOA ANDREAREN helbide fiskala zehaztea da (IFZ:---), eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 102/2011 espediente-zenbakiarekin. Javier Muguruza Arrese jauna da haren txostengilea.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hori Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) aurkeztu zuen, 2011ko abenduaren 22ko idazkiaren bidez. Hori hurrengo egunean erregistratu zen Batzorde honetan, eta 2015eko uztailaren 16an onartu zen horren izapidetzea. Arbitraje Batzordeko buruak sinatutako 2015eko irailaren 2ko ofizioaren bidez Zerga Administrazioko Estatu Agentziari (ZAEA) jakinarazi zitzaion EAEko Ordezkaritza Bereziaren helbidean (Federico Moyua plaza 3, Bilbo) gatazka aurkeztu izana, eta, ofizio horrekin batera, hura aurkezteko idazkia zein horrekin BFAk aurkeztutako agiriak ere helarazi zitzaizkion. Aipatutako ofizioa EAEko ZAEAREN Ordezkaritzan 2015eko irailaren 7an jaso zuten. ZAEAK ez du alegaziorik aurkeztu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala.</i>

2.- Espedientean gatazka konpontzeko esanguratsuak diren honako egitate hauek jaso dira:

a) BFAko Tributuen Ikuskapenak txostena egin zuen 2011ko martxoaren 24an ZERGAPEKOA ANDREAREN helbide fiskalarekin lotuta.

b) Txosten horretan jasotakoaren arabera, ZERGAPEKOA ANDREA zergapekoa sinatu duen aktuarioaren aurrean agertu zen 2006ko urriaren 10ean, tributu-arloko egiaztapena egiteko dei eginda, eta adierazi zuen 2002an helbide fiskala 1. UDALERRIA (Bizkaia) udalerritik 2. UDALERRIRA udalerrira (Kantabria) aldatu zuela. Eta 2008ko martxoaren 6an Domingo Antonio Fernández Gómez jaunak, espediente berean ZERGAPEKOA andrearen baimendutako ordezkari gisa, adierazpen hori berretsi zuen.

c) Halaber, txosten horrekin ere bat etorritik, zergadunak adierazitako azken helbide fiskala kokatuta zegoen 1. UDALERRIA udalerriko udalak, aktuarioak ZERGAPEKOA andrearen helbideari buruz galdetuta, hura udal-mugarte hartan inoiz bizi izanaren berri ez zuela jakinarazi zuen.

d) Aipaturako txostenaren arabera betiere, ZERGAPEKOA andreak ez du bere jabetza higiezinik Espainiako probintzia bakar batean ere, 2. UDALERRIA udalerriko (Kantabria) 1. KALEA kaleko 12 zenbakiko etxebizitza bat izan ezik.

e) Txosten horretan jasota dago, orobat, 2008ko otsailean, Notario Indizearen informazioaren arabera, ZERGAPEKOA andreak 1. SOZIETATEA izeneko sozietatea (IFK: ---) eratu zuela 2. UDALERRIA udalerriko 1. KALEA kaleko 8 zenbakian.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala.</i>

f) Halaber, txostenak zehazten du ZERGAPEKOA andrea bi banku-konturen titularra dela Kantabriako komunitateko bi sukurtsaletan, 1. BANKU-ERAKUNDEA eta 2. BANKU-ERAKUNDEA erakundeetan. Eta 2008ko ekainean 1. ZENBATEKOA euroko txeke bat kobratu zuela 3. BANKUKO ERAKUNDEA erakundearen Kantabriako sukurtsal batean.

g) Aurrekari horietan oinarrituta, BFAko Tributuen Ikuskapenaren 2011ko martxoaren 24ko txostenak, aurretik aipatutakoak, hau ondorioztatu zuen: ZERGAPEKOA ANDREAREN helbide fiskala 2. UDALERRIAN (Kantabria) dago 1. KALEA kaleko 12 zenbakian, hori baita haren ohiko bizilekua.

h) 2011ko apirilaren 12an, BFAk ZERGAPEKOA andrearen helbide fiskala ofizioz aldatzeko proposamena egin zuen, eta 2011ko maiatzaren 11n jakinarazi zioten hori ZAEARI.

i) ZAEAREN aldetik helbide fiskala aldatzeko proposamenari buruzko adierazpenik jaso ez zuenez, BFAk, 2011ko irailaren 26an, beste proposamen bat egin zuen; horren bidez, helbidea aldatzeko prozedura adiskidetsua amaitutzat jo zuen, eta berriro proposatu zuen ZERGAPEKOA ANDREAREN helbidea aldatzea aurrekoan egin bezala, hots, 2. UDALERRIKO (Kantabria) 1. KALEA kaleko 12 zenbakian finkatuta. BFAk bigarren proposamen hori ZAEARI igorri zion Kontzertu Ekonomikoko 43.Bederatzi artikularen ondoreetarako, eta 2011ko urriaren 4an jaso zuen haren jakinarazpena.

j) Bigarren proposamenari buruz ere ez zuen ZAEAREN adierazpenik jaso BFAk, horregatik, Arbitraje Batzorde honen aurrean gatazka hau aurkeztu zuen 2011ko abenduaren 23an.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala.</i>

3.- BFAk Arbitraje Batzorde honi eskatu dio adieraz dezan ZERGAPEKOA ANDREAREN helbide fiskala 2. UDALERRIAN (Kantabria) dagoela 2002tik aurrera.

Uzi horren aurka, ZAEAk ez du alegaziorik aurkeztu espedientean, eta ez da arbitraje-prozeduran agertu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoko arauak aplikatuz ebatzi behar da; hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zuten, eta pertsona juridikoen helbide fiskala zehazten du. Arauak honako hauek dira:

«43. artikulua. Ohiko bizilekua eta helbide fiskala

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehena. Lurralde horretan zergaldiko ahalik eta egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapean egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala.</i>

Pertsona fisikoen ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoretarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako».

(...)

«Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

a) Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak.»

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
102/2011	R24/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona fisikoaren helbide fiskala.

2. Gatazka hau ebazteko, hortaz, zehaztu beharra dago, transkribatutako EAEKEko 43.Bat artikularekin bat etorriz, ZERGAPEKOA ANDREAREN ohiko bizilekua non dagoen.

3. BFAko Tributuen Ikuskapenak egindako 2011ko martxoaren 24ko txostenean dauden zantzuak baino ez daude espedientean haren ohiko bizilekua zehazteko.

Adierazgarria da ZAEAk ez dituela zantzu horiek zalantzan jarri, hala bada: ez die erantzun horietan oinarrituta helbidea aldatzeko egindako bi proposamenei (Bizkaiko Foru Aldundiak igorri zizkion eta jaso egin ditu), eta ez du gatazka honetan alegaziorik aurkez, aipatutako txostena oinarri hartzen duen gatazka jartzeko idazkia, baita horrekin batera BFAk erantsitako agiriak ere, behar bezala helarazi arren.

ZAEA jarduketetan ez agertzea eta BFAREN uziari alegaziorik ez aurkeztea ez dago jasota Kontzertuan, ezta Batzordearen funtzionamenduari buruzko erregelamenduan ere; halere, horrek berez ez dakar BFAREN uzia automatikoki onartzea.

Baina ZAEA espedientean agertu ez izanari gehitu behar zaio, gainera, gatazka planteatu dela BFAk ez duelako ZAEAREN erantzunik jaso helbide Bizkaitik Kantabriara aldatzeko proposamenaren gainean; horrenbestez, Batzorde honek ez du inola ere ezagutzen ZERGAPEKOA ANDREAREN helbideari dagokionez ZAEAREN uzia zein den, ez eta helbide hori lurralde erkidean finkatzearen kontra egoteko zertan oinarritzen den ere.

4. Hori horrela, ondorioztatu behar dugu BFAREN uzia –hau da, zergapeko horren helbide fiskala ez dagoela 1. UDALERRIAN (Bizkaia) 2002tik, lurralde erkidean, 2. UDALERRIAN (Kantabria) baizik– arrazoizko zantzuetan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
<i>102/2011</i>	<i>R24/2015</i>	<i>2015-12-28</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala.</i>

oinarrizten dela, bereziki interesdunak berak ohiko bizilekuaren aldaketari buruz egindako adierazpena, BFAko Tributuaren Ikuskapenaren eginbidean jaso. Hala bada, horri emandako erantzunik ezean, sinesgarria da guztiz.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

- 1.- ZERGAPEKO andrearen helbide fiskala 2002ko ekitalditik Bizkaian ez dagoela adieraztea.
- 2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.
- 3.- Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.